

Lina eta Mikel portal magikoan



Baziren behin Lina eta Mikel izeneko bi lagun. Linak ile horia zuen eta abenturak gustatzen zitzaizkion eta Mikelek ile marroia zuen eta alaia zen.



Lina eta Mikel eskolan zeuden, jolastokian. Lina pareta batean zulo bat zegoela konturatu zen eta esan zion Mikeli:

- Hor zulo bat dago.
- Portal bat dela ematen du. Sartuko al gara?
- erantzun zion Mikelek.
- Bai!!! - esan zion Linak.


Eta sartu egin ziren.



Barrura sartu zirenean hegoak zituzten!!!! Eta gauza interesgarri asko aurkitu zituzten adibidez, hitz egiten zuten loreak, elefante txiki-txiki bat eta untxi erraldoi bat. Gauzak ez zuten zentzurik,

alderantzizko mundu bat zen eta beraiek konturatu orduko portala hizketan ari zen.

- *Portal honek 00:00etan itxiko ditu bere ateak eta bertan dagoen guztia desagertu egingo da. Hemen gelditzen bazarete ezin izango zarete inoiz atera, betirako geldituko zarete.*



Hori entzuterakoan beldurtu egin ziren baina mundu berri hura deskubritzeko irrikitan zeuden.



Egunean zehar oso ondo pasa zuten eta konturatu orduko 00:00ak ziren.

Portala desagertzen hasi zen eta beraien mundura bueltatu behar ziren. Justu-justu iritsi ziren baina lortu zuten.

Bizitakoa inori ez kontatzea erabaki zuten.

Denbora batera berriro leku berdinerara joan ziren baina portala ez zegoen.